2020

TAILERRA




# Indarkeria sexista eta gazteria: prebentzio pilulak

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO DE LA JUVENTUD

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO DE LA JUVENTUD

# TAILERRA: Indarkeria sexista eta gazteria: prebentzio pilulak




Indarkeria sexista eta gazteria: prebentzio pilulak

## Lehenengo edizioa

Noiz: 2020ko martxoaren 3an eta 10ean
Izena emateko epea: 2020ko otsailaren 10etik 20ra
Non: Bilbon, GEBren egoitza. Uriortu kalea, 11 - behea
Hizkuntza: euskaraz

## Bigarren edizioa

Noiz: 2020ko martxoaren 6an eta 13an
Izena emateko epea: 2020ko otsailaren 10etik 20ra
Non: Donostian, CRAJ, Anoeta 28
Hizkuntza: euskaraz

**Ordutegia:**
9:00etatik 14:00etara

**Leku kopurua:**
15 pertsona gutxienez, eta 25 gehienez

**Izena-ematea:**
www.gaztebehatokia.euskadi.eus




Formazio honen **helburu nagusia,** administrazioko politikari eta teknikari arduradunei, bai gazteriaren arloan lan egiten duten erakunde publiko eta pribatuetako profesionalei indarkeria sexistaren prebentzio eta esku-hartzerako baliabideak eskaintzea da.

## Helburu zehatzak

**1. Sentsibilizazioa handitzea indarkeria sexistari dagokionez.**

- Indarkeria matxistari buruzko oinarrizko marko teorikoa eskaintzea: indarkeria matxista, sexista eta genero indarkeria.

**2. Gazteen eremuetan ematen diren indarkeria sexista egoerak identifikatzen laguntzea.**

- Indarkeria mota eta modu ezberdinen inguruko gogoeta bultzatzea.
- Harremanetan ematen diren dinamikak aztertzea.

**3. Indarkeria sexista egoerak prebenitu, kudeatu eta aurre egiteko baliabideak ezagutu eta sortzea.**

- Gazteekin esku-hartzerako estrategiak azaltzea:
    - Prebentzio lan ildo ezberdinak bistaratzea: indarkeriaren identifikazioa, tratu onak eta neska gazteen ahalduntzea.
    - Esku-hartzerako pauta ezberdinak eskeintzea (psikosoziala, indibidual eta komunitarioa).
    - Neskekin eta mutilekin lan egiteko edukiak proposatzea.
- Eusko Jaurlaritza eta beste eragileek (Luku asmorik gabeko elkarteak, zerbitzuak etabar.) eskainitako baliabideak ezagutzea.






## Metodologia:

Pedagogia feministan oinarritutako metodologia erabiliko da. Pedagogia feministek, kontutan dituzte identitate sozial ezberdinen intersekzionalitatea. Identitate ez arautuei ikusgarritasuna eta espazioa eskaintzen zaie eta baldintzak sortzen dira kolektibo zaurgarrienak segurtasunez mugitu daitezen. Esperientzia bitartez ematen den ikaskuntzaren garrantzia aitortzen da. Gainera, zaintzaren etika integratzen da, ikaskuntza prozesua parte-hartzailea da, izakia, osotasunean ikusten da, bere alderdi fisiko, kognitibo, emozional eta soziala kontutan izanik eta ezagutzeko beste modu batzuk erabiltzen dira: antzerki foroak, irakurketak, asanbladak, etabar.

## Hartzaileak:

**Lehentasuna** izango dute **gazteekin lan egiten dutenek edo lankidetzan dihardutenek** (entitateetan, elkarteetan, herri-administrazioetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntariotzan...). Horrez gain, kontuan izango da **izen-emateen hurrenkera.**

- **Gazteen arloko langileak** (Gazteentzako Informazioa, udalak, aldundiak, gazte elkarteak eta aisialdikoak, eta beste entitate batzuk).
- **Hezitzaileak.**
- **Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako orientatzaileak.**

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO DE LA JUVENTUD




**Indarkeria sexista eta gazteria: prebentzio pilulak**

# Ikastaroaren nondik norakoak:

Formazio honetan eskainiko diren edukiak 3 atal nagusitan banatuko dira: marko teorikoa, indarkeria sexistak gazteengan eta prebentzio estrategiak.

**Indarkeria Sexista: marko teorikoa. Zer da indarkeria sexista?**

- Terminologia
- Sustraiak
- Indarkeria motak

**Nola ematen da Indarkeria Sexista Gazteengan? Zein espaziotan? Zein modutan?**

- Indarkeriaren indentifikazioa gazteengan: espazioak eta moduak
- Gazteen arteko harreman dinamikak

**Nola prebenitu dezakegu? Zein dira gazteekin esku-hartzean kontutan izan beharreko pautak? Zein baliabide ditugu?**

- Prebentzio ildoak: Indarkeriaren ahalduntze prozesuak
- Esku-hartzerako pautak
- Lantzeko edukia
- Programak: Beldur Barik, etab
- Zerbitzuak

# Irakaslea:

**Eider Goiburu.** Psikologialaria soziala, sexu-hezitzaile eta berdintasun teknikaria. Formatzaile eta bidelaguna

# Erakunde antolatzailea:

**GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA**

**Gazteria Zuzendaritza**
**Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila**
**944031645 • gaztebehatokia@euskadi.eus**